

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure helburu nagusietako bat bertako produktuen kontsumoa sustatzea da. Horrela, gure eremuko ekonomia bultzatu eta inguruko baserritarren, arrantzaleen etab.-en negozioak bizirik mantentzen lagunduko dugu.

Pasaiako arrantzaleekin eta inguruan dauden baserritarrekin akordioak egingo ditugu arraina eta beste lehengai batzuk lortzeko. Gertu daudenez ez dugu izango garraio gastu handiak.

Baserritarrei barazkiak eta haragia erosiko dizkiegu gure plater barietatea handitzeko eta lehengai gehiago edukitzeko.

Iranzuren familiak Nafarroan produzitzen duen uztaren zati bat erosiko genuke.